BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3736

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 25ekoa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena, esku-hartze sozialaren esparruan programa, proiektu eta jarduerak garatzeko eta teknikariak eta administrariak kontratatzeko erakunde publikoei diru-laguntzak emateko proposamena egingo duen kide anitzeko organoko kideak izendatzeko dena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko martxoaren 30eko Aginduaren bidez, esku-hartze sozialaren esparruan programa, proiektu eta jarduerak garatzeko eta teknikariak eta administrariak kontratatzeko erakunde publikoentzako diru-laguntzak arautu ziren. Agindu horren 9.3 artikuluan jartzen duenez, diru-laguntzak lehiaketa-prozeduraren bitartez ebatziko dira eta kide anitzeko organo bat egongo da, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak izendatutakoa eta ebazpen-proposamena egingo duena; kide izango dira, bestalde, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria –lehendakari izango da– eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako gutxienez bi teknikari eta, gehienez lau (horietako bat idazkari izango da).

Esandakoarekin bat, hau

EBATZI DUT:

Esku-hartze sozialaren esparruan programa, proiektu eta jarduerak garatzeko eta teknikariak eta administrariak kontratatzeko erakunde publikoei diru-laguntzak emateko proposamena egingo duten kide anitzeko organoko kide honako hauek izendatzea:

Lehendakaria:

Alfonso Gurpegui Ruiz jauna, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Batzordekideak:

José Manuel Muñoz Dermit.

Mikel Uria Martiarena.

Itxaso Goikoetxea Etxebarria (idazkari arituko da).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 25a.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria,
ALFONSO GURPEGUI RUIZ.